

Lurra

J.R. ETXEBERRIA



NEURE borondatezko gosea neure borondatez amaitu berri dudan egun honetan, bertan nengoela burura etorritako pentsamen-duetarikio bat ageritu nahi nuke. Protestaldiko ekimena egiteko lekuari buruzkoa, hain zuzen.

Ezaguna da, desterruan bizirik gabea, eta desterruan dagoenak ondo baino hobeto daki, zigor-mota horren noranahikoa. Zuhaitzak erroak sustraitzeko lurra behar duen modu berean, pertsonak ere, inon sustrairik izango bada, bere lurra behar du. Horregatik bere lur naturalerik eraztean, gaitzeko erasoa egiten zaio pertsonari. Are handiagoa, bere lurretik eraztean dutenak kanpoko lurra jabeak direnean.

Horrexegatik neure gose-grebarako lurrik egokiena Leioako Kanpua bera zen, bertatik desterratuta bainago. Horixe erreibindikatu behar nuen, nor bere lurretik kanpo intsenbide justirik ezin egon baitaiteke. Arazo beragatik, ezin izanagun ezisten diot, Euskal Herri-rik kanpora bizitzera kondenatutik edukiko nahi dituzten anai-arreba eskaldunek Baionara itzultzeko hartu duten erabakiari. Ez espainolak eta ez frantsesak ez baitira inor, gu geure lurretik aldenarazteko eta desterratzeko.

Pauso ausarta eman dute, zuen gaitzak arrikanen jarrit: lana, etxebizitza, nolabaitko lasatasuna... Baina txoriarentzat airea edo arrainenaztat ura bezain elementu garrantzizkoak da lurra guretzat, lurrik gabe ezin baizikari bizirik. Beren etorreraren erakutsi diguten kuraiaik eta determinazioak bultzada ederra eman digu guk geure ere gehien arloetan geuretxoa eman dezagun, arlo horietan guzietan "Euskal lurra" erakitzen ahalgindu gaitzen. Elkartzazuneko zubia eraiki nahi nuke Bilbotik Baionaraino, eta bertatik besarkadarrak anaikorra bidali.

Boto zenbaketak

TXILLARDEGI



EUSKAL arazoa nazio-arazoa da funtsean. Euskadi Askatua: bai ala ez. Separatismoari bai, ala *no* regionalismo. Muga nagusia hor dago.

Burujabetza lortuz gero, 'azak' jan behar genituzkeela, eta abar (eta partidu espainolekin egun duen ezkontza hauteszina lekuko). PNVA euskal separatismoaren kontra dago. Gauzak horretan daude orain dela 80 urte.

PNVren etsaia abertzaileok gara, eta ez Madrile.

Gauza bera itzulezara: Madrileren etsaia ez da PNVA. Herri Batasuna / ETA baizik. Beren esanetan *eta jokabideetan* hauek baitira Independentzia bilatzen duten indar *bakarrak*.

Anguita, Buesa, Aznar, Fraga, Arzalluz eta Onaindia ados dira honetan. Hauen ustez *Esatauren batasuna arriskutan* jarzteka baita arazoa, eta ez espainiar ezkertar zein eskuindar izateka.

'Ajuria Eneko' Ituna euskal abertzailetasun separatista oztopatzerata etorri da. Madrilek asmatutako 'Pactoaren' helburua ez da Demokratiaren ezartzea (Demokrazia *Auto-Determinazioan* funtsetan baita); euskal independentismoa zapaltzea baizik.

Hots, hauteskunde garaian, oso eginkizun garrantzitsua dute Pactoaren Prentsak, Irratiak eta Tebistak: populul-maila horretan abertzailetasunari botoak kentzea.

Mass media delakoak beren horretan daukenu, Herri Batasunak ez du inoiz, orokorki, hauteskunderik irabaziko. Badakigu.

Baina mila zirikitutatik ageri da argi Independentziaren partidua Euskal Herriari irabaziaz daulka; eta abertzaileok dugula heman herriagirik idarra.


Geroak erranen.

● **egin**

Mesedeak

Hauteskunde hauekarako ETBK prestatutiko mahainguru eta elkarriketa egitarauak orain artean gatzik gabeko emaitzak izan dituela genioenok, sorpresa polita hartu dugu kanpaina amaitzeko egunaren bezperan. Bero-tasunik gabeko mahainguruz kezu ginenok beroa azken txanpa honetan somatu dugu, eta ez gara bakarrik izan, Euskal tebistako kazetariek ere ezin alboratu odol beroa. Maddalen Iriarte eta Xabier Euzkitze berotu egin baitzi-

HEMEROTEKA



Gogoeta eguna.

ISIDRO / DIARIO DE NOTICIAS

ren Ramon Etxezarreta sozialista-euskaldunari elkarriketa egitean, kanpaina honetako saio desberdinetan erakutsi duten laisatasuna eta eskua alboratzeraino... Nabarriak diren erreallitateak ukatuz, espainiar abertzailetasunaren inguruan euskal abertzailetasunaren muinoen kontra jo zuten urretildarrak Onaindiaren irakaspak ikasitak dituela erakutsiz. Gero eta urdu-riago Maddalen eta Xabier, kazetari elkarriketatzaile papera izateagatik honelako adierazpen-erantzuteko ahalmenik ez izatek sortzen duen tripako minaren adierazle garbiak.

ANDER IRURETA

ZUZENDARIARI

Mendizale 'zikin' batzuen gutuna bi bidaiariei egina

Bapo neskak! Bai erraz salatu duzuela Makalurarako Espedizio Arabarra hain maite dugun egunkari honetan. Salatu beharrekoak salatu egin behar dira, bai, baina salatzeko ere egia esan behar da, edo, bestela esanda, gauzak nola izan diren jakin gabe salaketarik egitea ez da zuzena.

Diiozuenek, poz handia hartu omen zuten gu han barna genbiltzala jakitean eta guregana jo omen zutenen. Baina hara non gu aurkitu beharrean ustez guk botatoko hainbat zabor-arrasto aurkitu omen zutenen. Zuek ez dakizue, ordea, fetxa haietarako jende askoren esku zeudela janari-mota haiek guztiak, erregalatu egin baitzenizkien portadore, australiar eta frantziarrei. Baina, jakina, zuek izen espainoleko jakien arrastoak (guri egotzi behar al diguzue jaki horiek izen espainola izatea ez?) ikusi orduko salaketa elebre hori idatzeta utuzten zaizue, burutik pasa ere egin gabe, antza, gurekin haremnanetan jarri eta argitu beharrekoak argitzea.

Ez al zenituzten frantziar batzuk jaisten ikusi Benjamin (ikusi zenuten basko bakarra, Bortzierto) pasatzen ikusi baino pare bat ordu lehenago? Jakin ezazue bada haiek zeramatela zuek aipatzen duzuen Eroskiko poltsa hainbat jakiz bete.

Ezagutzen gaituztenek ondoko dakite zer-nolako jokabidea izan dugun betidanik (ez da atzo arratseko kontua beraz) mendiarrikiko eta, oro har, naturarekiko.

Izugarriko presa omen genuen 'gailurra egin' ondoren (ekologistakoa ote 'gailurra igo' esateaz?) zibilizazioa lehenbiltzen helitzeko. Nola ez genuen, bada, presarik izango berrogeita hamar egun hari eta izotz artean

egon eta gero, gure oin, esku, hatz eta behatzei deskantsu ematera joateko, berdeguncetara jaisteko? Ba al dakizue zer esaten duzuen?

Pena dugu guk ere bihotzean, horrelako hitz zitrinak irakurri ondolan hartua. Zuen jokabidea, halakoa mihi gaitzuz jardutea, ez dator bat mendiak hain bere dituen zintzotasun eta isiltasuneraino, gezurretan aritzea baino hobea baita isilik egotea.

MAKALU-RAKO ESPEDIZIO ARABARREKO KIDEAK

Herriari zerbitzeko hauteskundeak

Gaurko udal eta foru-diputazioetarako hauteskundeak gure Herri honen elkar bizitzarako eta aurrerabiderako ondorio garrantzizkoak dituen gertakizun politikoak dira. Herriko errealtatearekin zerikusi zuzena duten Instituzioetan ordezkatuko gaituztenak hautatu behar ditugu. Justziaren aldeko, eta gizarteko baztertuenean, gabetuenean eta pobreenen zerbitzua eta laguntza alderako geure kristau aukeratik, herritar guztiei eskatu nahi diegu solidaritzaren printzipioei eta helburuei dagoenik benetako boto erantzukizun-zezkoa eman dezaten.

Lehenik, nahi dugu, gure Instituzioak benetako demokrazia partehartzailearen eremu izan daitezten, non gizarte mugimendutik eta herriko taldeek kontuan hartuak eta entzunak izango diren, dakartzaten proposamen, eskaizun eta ekimenetan. Behin eta berriz diogu, hautatuak, ezei baino lehen, Herriaren ordezkariak ditela eta haren zerbitzuan behar dituela izan, eta ez bere etekin indibidualak edo eta bere partiduenek lortzeko.

Herritari zerbitzea zera da, ezei baino lehen, gure gizarteko sektoreetan baztertuetak laguntzea: langabezia dauden langileak, lehen

lanpostuaren bila dabiltzan gazteak, gabezia ekonomiko eta sozial larrian dauden pertsonak eta familiak, preso sozial eta politikoko, etorriak. Bereziki inportanteak eta premia-koak iruditzen zaizkigu denentzako etxebizitza duin baten erreibindikazioa, eta nekazal, ekologikoa, industri eta arantza baliabideen bultzada eta defenatzea. Gure Instituzioek, gaitera, munduko herri zapalduen aldeko ekimenak eta solidarizatzeko laguntza moduak bultzatu, lagundu eta bideratu behar dituzte.

Euskal Herriak, gaur, bere Instituzio guztien konprometuz behar du, bere kultura eta hizkuntza, bere lurralde osotasuna eta batasuna, eta gure eskubide kolektiboaren erabil-tzea, bereziki autodeterminazioarena, eutsi eta garatzeko. Instituzio publikoek kontzentzi-arekiko leialtasunari jarraiki beren burua intsumitu aitzortzen dutenen eskubidea defenda dezatela eskatzen dugu.

Bortzikeria eta gatazka guztien zergatiki, justziaren aldetik erantzun nahi duten ikus-puntu eta proposamen hauetatik, Euskal Herriaren benetako bakea eraikitzen joan behar dugu; non bake horren lorpenean, elkarriketa modu guztien bultzatze eta laguntzaren bi-tartez, Udalek, Diputazioek eta Nafarroako Gobernuak erantzukizun larria duten.

Kristau Elkarte Herriaren partaide garenez, borondate oneko jende guztiarentzat bali- duen Ebangelioko printzipio hauxe azpi-marratu nahi dugu: boterea zerbitzu gisa hartu behar dela alegia. Hemendik, iruditzen zaigu, gure ordezkari hautatuen eskumen publiko-aren erabilera orok, zilegia eta egiazkoa izango bada, beti ere, herri-beharraren eta batez ere ixrorenen eta gabetuenean aldeko eta ordainik gabekoa izan behar duela.

AMPARO FERNANDEZ

FELIX NUÑEZ

(Kristau Elkarte Herriarrak)


GAIJA JARRITA



Derbia

Euskal kirola degu honako asteburuko izarra, Euskal Herrira zabaltu zaigu Derbiaren deidarra. Ta Erreala izan dadila irabazten dun bakarra, hiru eta bat irabaztea ez litzake oso txarra, hamar ta zero ez det esango ni ez bainaz bilbotarra.

IBAI ESOAIN



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X

OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORRELLA

Kontseilari Ordezkarria: IÑAKI URRA

Zuzendaria: MARTXEL OYAMENDI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIKIDAEK

Egultza nagusia: Gaurien etorbidea, s/g, 20140 Andoain + 300 222 / Erredakziofona: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707

Araba: San Antonio, 20-1.lekua / 01005 Gasteiz / +23 38 72 / Fax: 23 38 73 + Publizitate: 13 19 65

Nafarroa: Iruñe Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñetik dorrea) / 31011 Iruñe + 17 80 78 / 79 / Fax: 17 80 77 / + Publizitate: 17 86 86

Bizkai: Zabaltzu Eparantzua, 2-1. lekua. / 48003 Bilbo + 410 40 46 / Fax: 410 37 15 / + Publizitate Orokorra: 410 38 55 / Publizitate Lokala: 410 38 46

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1 / 503 Posta kutsailua, / 64100 Baiona / + 59 59 35 / Fax: 59 25 75 11